

**17/2024 TXOSTENA, URRIAREN 10EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN EGITURA
ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA.****I.- AURREKARIAK.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 2. artikulua araber, sail hauek izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak:

- a) Kultura eta Hizkuntza Politika.
- b) Ekonomia, Lana eta Enplegua.
- c) Ogasuna eta Finantzak.
- d) Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua.
- e) Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna.
- f) Segurtasuna.
- g) Hezkuntza.
- h) Etxebizitza eta Hiri Agenda.
- i) Osasuna.
- j) Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa.
- k) Mugikortasun Jasangarria.
- l) Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza.
- m) Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa.
- n) Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza.
- o) Justizia eta Giza Eskubideak.

Halaber, 18/2024 Dekretuaren 8. artikulua egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio Ogasun eta Finantza Sailari:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak bideratzea, prestatzea, horien kudeaketa orokorra, segimendua eta kontrola egitea, eta aurrekontuen programazioa egitea.



- b) Sektorre publikoaren aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna.
- c) Barneko ekonomia-kontrola, kontabilitatea eta kontabilitate-erantzukizunak.
- d) Laguntza eta dirulaguntza publikoen araubidea arautzea eta gainbegiratzea.
- e) Kredituaren antolamendua, finantza-politika eta finantza-entitateekiko harremanak. EAEk euskal sektore ekonomikoak finantzatzeko eta haietan partaidetza publikoa izateko dituen tresna publikoak kudeatzea.
- f) Aurrezki-kutxak, banku-fundazioak eta kreditu-kooperatibak.
- g) Diru-bilketaren kudeaketa, diruzaintza, zorpetzea eta berme-emateak.
- h) Aseguru- eta berraseguru-jarduera, bai eta aseguru eta berraseguru pribatuen banaketa baimentzea eta kontrolatzea ere.
- i) Balore-merkatua.
- j) Gizarte-aurreikuspeneko entitateak.
- k) Ekonomia Ituna, Estatuarentzako kupoak eta lurralde historikoen ekarpenak. Transferitzekoak diren eskumen eta/edo zerbitzuak baloratzea, eta finantza-fluxuak finkatzea eta kudeatzea, Gizarte Segurantzaren finantzaketari dagokionez.
- l) Finantza-jarduera beste administrazio publiko batzuekin koordinatzea.
- m) Harmonizazio, koordinazio eta lankidetzak fiskala.
- n) Zerga Administrazioa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak.
- o) Ondarea eta kontratazioa.
- p) Jaurlaritzaren politika ekonomikoa koordinatzea, bai eta programa eta politika publikoen ebaluazioa eta analisisa egitea ere.
- q) Europako kohesio-funtsen arloko politika.
- s) Lehiaren defentsa.
- t) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- u) Legeek eta erregelamenduek eman diezazkioten gainerako ahalmenak.

Artikulu horren bigarren apartatuan adierazten da sail horri atxikita daudela Lehiaren Euskal Agintaritzak administrazio-organismo autonomoa eta Finantzen Euskal Institutua zuzenbide pribatuko ente publikoa.

Hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, dekretu horren azken xedapenetako lehenengoan aurreikusitakoa gauzatzen den bitartean, iraungitako Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita geratuko dira Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion



funtzioak betetzen dituzten Ekonomiako eta Europako Funtsetako Sailburuordetzako unitateak.

Azkenik, azken xedapenetako lehenengoan esaten da sailburuek, 2024ko urriaren 31 baino lehen, beren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak aurkeztuko dizkiotela lehendakariari, onarpena eman diezaien. Proiektu horiek gobernu-programan sailei izendatutako jardun-arlo bakoitzerako aurreikusitako helburuetara eta printzipio gidarietara egokitu beharko dira.

Hala, dagokion dekretu-proiektua egitea sustatu da, Ogasun eta Finantza Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta, horren bidez, 8. artikulua horretan esleitutako esparruei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

2024ko urriaren 1ean, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_DEC_5352/24_04), agiri hauek agertzen dira:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Dekretu-proiektuaren arau-eragina aztertzeke memoria.
- Dekretua egiteko prozedura hasteko agindua eta proiektua aldeztatik onartzeko agindua.

Dekretu-proiektua honela osatuta dago: 17 artikulua, 2 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile 1 eta 2 azken xedapen.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz; izan ere, xedapen orokor bat da, eta xedapen orokor horren edukiak kontratazio publikoaren eremuari eragiten dio partzialki, eta Gobernu Kontseiluari dagokio hura onartzea.



Bestalde, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, Aholku Batzordeak duen aholkularitza-eginkizuna, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Batzorde Iraunkorrek beteko du.

Irismenari dagokionez, dekretu-proiektutik sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten esparruak soilik jasotzen dira txosten honetan; izan ere, kontratazio publikoaren gaineko eskumenak bakarrik dagozkio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honi.

III.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK.

Jarraian, kontratazio publikoari buruzko proiektuko artikulua aipatuko ditugu:

*“3. artikulua.– Ogasun eta Finantzetako sailburua.
[...]*

*2.– Ogasun eta Finantzetako sailburuak egiteko hauek ere izango ditu:
[...]*

*e) Sailaren 1.000.000 euroko edo hortik gorako gastuak baimentzea, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak.
[...]*

g) Ogasun eta Finantza Saileko kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak erabiltzea, baldin eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia, BEZa barne, 1.000.000 eurokoa edo hortik gorakoa duten kontratuak eta hitzarmenak badira.

Halaber, prestazioen zenbatekoa aurreko paragrafoan zehaztutakoaren berdina bada edo kopuru hori gainditzen badu, sailburuak eskumena izango du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera duten entitateei mandatuak egiteko, sektore publikoaren kontratazioa erregulatzen duen araudiaren arabera. [...]

i) Zuzenean eta hierarkian sailburuaren mende dauden zuzendaritzetako eta sailburuordetzetako titularrek emandako administrazio-egintzen aurka jartzen diren errekurtsoak ebaztea.

6. artikulua.– Ogasun eta Finantza Saileko zuzendaritzak.

Oro har, egiteko hauek izango dituzte Ogasun eta Finantza Saileko zuzendariek: [...]

*i) Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezarri eta inplementatzea, eta horien jarraipena egitea Zuzendaritzaren jardun-esparruetan, besteak beste: itzulpen-irizpideak, langileen etengabeko prestakuntza orokorra, izendapen ofizialak eta sailak antolatutako ekitaldi publikoak. Halaber, hala dagokionean, kontratazio publikoan eta dirulaguntzak emateko deialdietan hizkuntza-irizpideak sartzea proposatzea.
[...]*

j) Zerbitzu Zuzendaritzaren gidaritzapean eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Planeko helburuak definitzea beren esparruan eta horiek lortzeko ekintzak eta ekimenak gauzatu eta ebaluatzea, beren zuzendaritzako zerbitziburuekin lankidetzan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken kudeaketa integratua eginez.



9. artikulua.– Zerbitzu Zuzendaritza.

1.– Zerbitzu Zuzendaritzak, 6. artikuluan adierazitako egitekoez gain, honako hauek izango ditu:
[...]

d) Sailaren 1.000.000 eurotik beherako gastuak baimentzea.

e) Saileko atalek lanpostuak fisikoki kokatzeko eta ekipamendua banatzeko egiten duten lana eta lekua eraberritzeko eta hobetzeko egiten dituzten obrak zuzentzea, hargatik eragotzi gabe hainbat sailtarako diren zerbitzuen ardura duten organo eskudunen eskumenak.
[...]

2.– Zerbitzu zuzendariak erabiliko ditu Ogasun eta Finantza Saileko kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia, BEZa barne, 1.000.000,00 eurotik beherakoa duten kontratu eta hitzarmenetan.

Halaber, prestazioen zenbatekoa 1.000.000,00 eurotik beherakoa bada, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera duten entitateei mandatuak egiteko eskumena izango du, sektore publikoaren kontratazioa erregulatzen duen araudiaren arabera.

10. artikulua.– Ogasun Sailburuordetza.

1.– Ogasun Sailburuordetzak erabiliko ditu, Ogasuneko eta Finantzetako sailburuak zuzenduta, gai hauetan Ogasun eta Finantza Sailari esleitu zaizkion eskumenak: Ekonomia Ituna, Estatuari eman beharreko kupoa eta lurralde historikoen ekarpenak; transferitzekoak diren eskumen edo zerbitzuen balorazioa; Gizarte Segurantzaren finantzaketari dagokionez izan beharreko finantza-fluxuak zehaztea eta kudeatzea; finantza-jarduera beste administrazio publiko batzuekin koordinatzea; harmonizazio, koordinazio eta lankidetzak fiskala; autonomia-erkidegoko zerga propioak; zerga-administrazioa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak, bai eta ondare- eta kontratazio-arlokoak ere, [...]

12. artikulua.– Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak, 6. artikuluan adierazitako egitekoez gain, honako hauek izango ditu:
[...]

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean kontratazio araubidea garatu eta koordinatzen duen zentro zuzentzaile denez, orokorrean, Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion eskumenak izango ditu. Arlo horri dagokionez, jardunerako eta barne-antolaerako arauak ezar ditzake kontratazio espedienteak izapidetzerakoan eta kontratuen eta kontratisten erregistroko kontuetan.

c) Hauek ere badagozkie:

1) Kontratazio Batzorde Nagusiaren eskumeneko kontratazio-espedienteak izapidetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubidea erregulatzen duen araudiarekin bat etorriz.

2) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko botere adjudikatzzaileen kontratu-jarduera dela-eta kontratazio-araubideari buruz indarrean dagoen legedian xedatzen diren txostenak egitea.

3) Sektore publikoan integratutako entitateei bultzada, laguntza eta aholkuak ematea kontratazioaren arloan. Eskumen hori egikaritzeari dagokionez, zera dagokio:

a) Kontratazioaren arloan beharrezkotzat jotzen diren arau-proiektuak sustatzea, kontratazio publikoan orokorrean aplikatu daitezkeen.

- b) Kontratazioaren arloan zirkularrak egiteko eta gomendioak emateko ahalmena.
- c) Kontratazio publikoaren arloan bitarteko elektronikoak eta informatikoak ezar daitezzen sustatzea eta bitarteko horiek garatzea.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari jakinaraztea, titularraren bidez, botere adjudikatzailerentzako garrantzi bereziko gaiei edo interes orokorrekoak diren gaiei buruz zer iritzia duen aholku-organoak berak, hala egitea beharrezkoa, egokia edo komenigarria dela irizten diotenean. Horretarako, txostenak egingo ditu, edo orokorrean aplikatu beharreko gomendioak edo irizpideak emango ditu. Bereziki, nahitaez eta txertatu aurretik, aholku-organo horren iritzia jaso beharko du helburu hauek bermatzeko proposatzen diren neurriei buruz: helburu sozialak, ingurumenekoak, linguistikoak, aukera-berdintasunari dagozkionak, digitalak, berrikuntzakoak, ETEak sustatzekoak eta gizarte-erantzukizunekoak.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateei laguntza eta aholkuak ematea, hargatik eragotzi gabe entitate horietako organoek arlo horretan dituzten eskumenak.
- f) Laguntza teknikoa eta administratiboa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari.
- g) Sektore publikoko kontratuen araudian aurreikusitako lankidetzaren publiko-pribatuko formulen bitartez proiektuak eta jarduerak gauzatzeko jarraibideak eta aholkularitza bultzatu eta ezartzea.
- 4) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Institutuzionalaren hornidura, obra eta zerbitzuen kontratazioa kontratazio zentralizatu izendatzeko administrazio-espeditentea osatu eta izapidetzea, eta halakotzat jotako prestazioak eskuratzeko hasita dauden kontratazio-espeditentek kudeatzea.
- 5) Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuen eta lizitatzailerentzako enpresa sailkatuen erregistroak ikuskatu eta kudeatzea.
- 6) Enpresen sailkapenari buruzko espeditentek izapidetzea.
- 7) Kontratazio elektronikoaren definizio funtzionala ematea eta haren ezarpena garatu, hobetu eta koordinatzea.
- 8) Kontratazio Publikoa Euskadin plataforma kudeatu eta mantentzea.
- d) Arrisku eta aseguruaren kudeaketari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langile, ondare eta jardunean eragina duten arriskuen azterketa, balorazio, kudeaketa eta bermeari buruzko araudian ezarritako dauden eskumenak izango ditu, oro har.
- e) Ondarearen, kontratazioaren eta arrisku eta aseguruaren kudeaketaren alorrean indarreko legeriak ematen diren beste edozein eskumen”.

116/2016 Dekretuaren 6. artikulua haxe ezartzen du: “Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoak [...] salbu eta besterik xedatzen bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan [...]”.

Ahalmen hori baliatuz, dekretu-proiektuak aurreikuspen hauek ditu:

3.2.g) artikulua lehen paragrafoan diotenaren arabera, sailburuari dagokio Ogasun eta Finantza Saileko kontratazio-organoari esleitutako ahalmenak erabiltzea, baldin eta



oinarrizko lizitazio-aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia, BEZa barne, 1.000.000 eurokoa edo hortik gorakoa duten kontratuak eta hitzarmenak badira.

9.2 artikulua lehen paragrafoan dioenaren arabera, Zerbitzu zuzendariak erabiliko ditu Ogasun eta Finantza Saileko kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak, oinarrizko lizitazio-aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia, BEZa barne, 1.000.000,00 eurotik beherakoa duten kontratu eta hitzarmenetan.

Uste dugu artikulua horietan jasotako aurreikuspena egokia dela; izan ere, oinarrizko lizitazio-aurrekontua beti agertu behar da, salbu eta horrelakorik ez badago, esparru-akordio bat delako, esaterako; soilik horrelakorik ez dagoen kasuetan aplikatuko da balio zenbatetsiaren kontzeptua, oro har, oinarrizko lizitazio-aurrekontuarekin erkatuta oso desberdina baita. Hortaz, ez da ustezko aukera gisa agertu behar; aitzitik, kontratazio-organoa zehazteko soilik muturreko salbuespen kasuetan aplika daitekeen kontzeptu modura agertu behar da.

Kontratazio-organoaren edo -organoen egituraketa Sailari berari dagokion antolaketa-gaia da, eta, beraz, aipatutako xedapenak bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren xedapenekin.

Dekretu-proiektuko 3.2.g) eta 9.2 artikuluen bigarren paragrafoetan, bitarteko propio pertsonifikatuei enkarguak egiteko ahalmena jorratzen da. Hala, 3.2.g) artikuluko bigarren paragrafoan, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren eskumena adierazten da baldin prestazioen zenbatekoa aurreko paragrafoan zehaztutakoaren berdina bada edo kopuru hori gainditzen badu (1.000.000 euro); eta 9.2 artikuluko bigarren paragrafoko lehen tartekiak Zerbitzu zuzendariaren eskumena ezartzen du prestazioen zenbatekoa 1.000.000 eurotik beherakoa bada.

Dekretu-proiektuko 3.2.e) artikulua ezartzen du sailburuak baduela eskumena Saileko gastuak baimentzeko 1.000.000 eurokoak edo gehiagokoak badira, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak. Bestalde, dekretu-proiektuko 9.1.d) artikuluan jasotzen da Zerbitzu Zuzendaritzari dagokiola sailaren 1.000.000 eurotik beherako gastuak baimentzea.

Dekretu-proiektuaren 6.i) artikulua Ogasun eta Finantza Saileko zuzendaritzaren eskumena jasotzen du, esanez “[...] kontratu publikoetan hizkuntza-irizpideak proposatzea dagokiola [...]”. Horrekin lotuta, berariaz aipatu behar da Gobernu Kontseiluak 2023ko ekainaren 6an



onartu zuen eta egun indarrean dagoen erabakian adierazitakoaren arabera garatu behar dela eskumen hori –Erabakia, zeinaren bidez onartzen baitira hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako entitate guztietan aplikatu beharrekoak–.

Bada, aipatu berri den erabakian ezarritakoaren arabera, EAeko Sektore Publikoak egiten dituen kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, bi helbururekin: batetik, herritarrei bermatzea erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak; bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza- ofizialtasunaren erregulazioa betetzea.

Era berean, kasuan-kasuan kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak ezarriko dituzte administrazio-klausula partikularren agirietan. Alde horretatik, kontratuaren xedeak bete egingo du bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den entitatearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.

Orobat, herritarrei arreta ematea eskatzen duten edo xedea zerbitzu bat ematea duten kontratuetan, proportzionaltasun-printzipioa bermatu beharko da kontratuaren preskripzio teknikoetan, kasuan kasuko ezaugarrien, helburuaren eta hartzaileen arabera; kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei lotu beharko zaizkie, eta bitarteko propioen edo besteren bitartekoen bidez egiaztatu ahal izango ditu enpresak.

Kontratua betearazteko baldintzen artean, entitate kontratatzailearen eta adjudikaziodunaren arteko harremanetan erabiliko den hizkuntzari buruzko alderdiak azaldu ahal izango dira.

Alabaina, kontuan hartu behar da hizkuntza-klausulak ezin direla ezarri eskatzen diren kaudimen teknikoko betekizunen artean.

Dekretu-proiektu honen 12. artikulua Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari dagozkion egitekoak jaso ditu, 6. artikuluan aipatutakoez gain. Egiteko horiek bat datoz 116/2016 Dekretuko xedapenekin.

Era berean, aurretik aipatu diren proiektuaren 3.2.g) eta 9.2. artikuluetan, kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak esleitzeaz gain, bitarteko propioei mandatuak egiteko eskumena ere jasotzen da, muga kuantitatibo berberekin –Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan dago araututa figura hori–

Batzorde honek beste batzuetan jakinarazi duen bezala, bitarteko propioei egindako mandatua lankidetzan publikoko modu bat da. Modu horretako lankidetzan publiko horrek kontratuzkoa ez den izaera instrumentala du, eta lizitazioari lotuta ez dauden edukiak ditu, nahiz eta obrei, zerbitzuei eta hornidurei buruzkoak izan (kontraprestazio ekonomikoaren eta kontratatzailearen profileen nahitaz agertu beharreko publizitatearen mende daude, eta kontratu-errekurtsoen auzitegietan errekurrizko modukoak dira).

Kontratazio publikoaren eremua murrizteak lehiaren eta eraginkortasunaren gaineko arriskuak ekar ditzakeenez, bitarteko propioei mandatua egin ahal izateko, arrazoitu egin behar da, eta alderdi hauek islatu, besteak beste: mandatua egiten duen entitateak ez daukala bitarteko zuzen nahikorik; mandatua jasoko duen entitatea egokiena dela formalki (helburu sozialaren egokitzapena) eta materialki (bitarteko egoki nahikoa duela), eta, halaber, eraginkortasun-arrazoiak daudela kudeaketan.

Halaber, egokitzat jotzen da mandatua egiteko eskumena ematea proiektuaren artikuluetan adierazitako organoei, kopuru txikia delako eta horrek koordinazio, sinplifikazio, efizientzia eta eraginkortasun hobea dakarrelako egingo den kontratazio publikoari dagokionez.

Emakumeen eta gizonen arloko eskumenei dagokienez, adierazi behar da indarrean jarri zela martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Horren bidez, euskal botere publikoek genero-berdintasunaren arloan jarduteko printzipio orokorrak ezarri dira, bai eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzera eta bermatzera bideratutako neurri guztiak ere, eta, bereziki, emakumeen ahalduntzea, autonomia eta haien posizio sozial, ekonomiko eta politikoaren indartzea sustatzera bideratutakoak, egiturazko desberdintasuna eta sexuagatiko diskriminazio mota guztiak desagerrarazteko, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne.

Testuinguru horretan, 1/2024 Jarraibidea onartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzkoa. Jarraibide horrek orientabideak eta jarraibideak eskaintzen ditu genero-ikuspegia eta berdintasun-klausulak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Administrazio Institutuzionalaren eta sektore publikoko gainerako entitateen kontratazio publikoan txertatzeko moduari buruz. Horren guztiaren xedea da laguntza ematea aipatutako Legearen testu bateginean (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren bidez onartua) kontratazio publikoari buruz xedatutakoa aplikatzeko, bereziki



22. artikuluan dioena. Nolanahi ere, kontratazio publikoa arautzen duen esparruak ezarritakoa errespetatzen dela bermatu beharko da.

Bestalde, txosten honen xedea ez bada ere, gomendatzen da, hitzarmenak sinatzean, arreta berezia jartzea eta egiaztatzea benetan ez direla kontratuak, kontraprestazioetan duten kostu bidezko izaeragatik.

Kontuan hartuta esandakoa, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta aholkuen arabera egokitzen bada.